

INOIZ EGON DEN KONTRATAZIO ARAUDIRIK TXARRENA EZARRI NAHI DU HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAK

Gaurko mahai sektorialean berretsi digute datorren ikasturterako lehentasunezko zerrendak berreskuratuko dituztela. Honek oposizioa eta kontratazio zerrenden arteko lotura zuzena suposatzen du, egonkortasunari muzin eginez.

Erabaki hau hartzeko erabili duten aitzakia izan da gaur egun indarrean dagoen kontratazio araudia bertan behera utzi duen epaia. Bai mahai sektorialetan baita beraien zerbitzu juridikoetan ere behin baino gehiagotan adierazi zaigu irtenbide ezberdinak zeudela, besteak beste oposizioa eta kontratazio zerrendak bereiztea (Nafarroan 2007 arte indarrean egon zen bezala). Beraz, erabaki politikoa da lehentasunezko zerrendak berriz ere inposatzea.

Honekin batera espezialitate eta hizkuntzaz bereizitako zerrenda segregatzaileak mantenduko dira, aspaldian batzuek izan dituzten pribilegioei jarraipena emanez.

Hau gutxi balitz, erabakiak hartu dituzte benetako negoziatorik gabe, ohi den bezala.

Araudi berriaren behin betiko testua oraindik jaso ez dugun arren gure ezetz borobila aurreratu diogu kontseilariari, sindikatuok aldeko edo kontrako bozka ostiralean emango badute ere.

Negoiazio iruzurra eta inposizioa salatzen, eta beste kudeaketa mota bat aldarrikatzeko STEILAS eta ELA sindikatuok datorren asteazken arratsaldeko 18etan Hezkuntza Departamentuaren aurrean egingo den elkarretaratzera deitzen ditugu irakasleak lelo honekin:

**“NO A LAS LISTAS PREFERENTES/ZERRENDA INTEGRATUA
DA BIDEA”**



EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN QUIERE IMPONER LA PEOR NORMATIVA DE CONTRATACIÓN QUE NUNCA HAYA HABIDO EN NAVARRA

Hoy en la mesa sectorial nos han confirmado que recuperarán las listas preferentes para el próximo curso. Esto supone la vinculación directa entre oposiciones y listas de contratación, haciendo caso omiso a la estabilidad.

El pretexto esgrimido para tomar esta decisión es la sentencia que ha dejado sin efecto la normativa de contratación actualmente vigente. Tanto desde la mesa sectorial, como de los servicios jurídicos del Departamento se nos ha señalado que había diferentes salidas, entre otras la de desvincular oposiciones y listas de contratación (tal y como ha sucedido en Navarra hasta el año 2007). Por tanto, es una decisión política imponer otra vez las listas preferentes.

Junto a esto, se mantendrán las listas segregadoras por especialidad e idioma, dando continuidad a los privilegios que algunas personas disfrutaban desde antaño.

Por si esto fuera poco, han tomado las decisiones sin una negociación política verdadera, tal y como acostumbran.

A pesar de que todavía no hemos recibido el texto definitivo de esta nueva normativa, le hemos adelantado a la consejera nuestro no más rotundo, antes de que se produzca la votación definitiva el próximo viernes 27 de abril.

Para denunciar este fraude de negociación y la imposición, y para reclamar otro tipo de gestión STEILAS y ELA convocamos al profesorado a una concentración ante el Departamento de Educación el próximo miércoles 25 de mayo a las 18:00 con este lema:

**“NO A LAS LISTAS PREFERENTES / ZERRENDA INTEGRATUA
DA BIDEA”**

